

ANDRA MARIA EUSKAL LITERATURAN

Ez dot uste geiegikeririk botako dodanik Euskalerria oso Andra Mari- zale izan dala, ta gaur be dala, esatean. Alan eta guzti, bere bizitzea bizitza lez ez dau oraindiño iñok idatzi. Asko ta asko idatzi da Aren birtute ta egite onak aitatzuz, Aren Nazaret'eko bizitza, Jesus Umearen Jaiotza, Kalbario'ko tontorrean bere Semearen Gurutz oiñean egoteaz, eta abar. Onetan ez, ez gara izan urriak.

Euskal kantutegiak bakarrik aipatzeko, guztiz oparo ta aberatsak dira oneik. Aren bizitzako momentu zoragarri askotan: Belen, Egipto, Jerusalem, Nazaret. Gauza ederrak aurkitu geinkez Zubero'ko pastoraletan, euskal kanta zarretan, abenduan batez etxerik etxe Gernikaldean abesten dabezan Marijesiak, eta gaiñerakoak. Aramaiotar Barrutia'k, Eroslearen Ama lez goratzen dau Maria bere euskal lan eder «Gabon-gaberako Ikuskizuna» deritxonean; lenengo euskal olerkariak, Beñat Etxeparek, «Linguae Vasconum Primitiae» (1545) idatzi ta argitaratu ebanak, Maria gogora dakar bere bertsoetan, bein eta barriro, bere Bibliako zeaztasunik berezietan.

Beste ainbeste egiten dabe lapurditar koplakariak be, Maria goretsiaz euren olerkietan. Gazteluzar'ek (1619-1701) argia eskatzen dautso Andra Mariari bertso gartsu-gartsuetan; Kristobal Harizmendi'k, Sara'ko seme ta izlari ona danak, Bordel'en argi-

taratzen dau «Ama Virginaren Officioa» (1658), geroago be beste argitalpen bi euki ebazana. Joanes Etxeberri'k bertso egokituz Kristo Jesus'en Umezaroa biribildu eban, Ziburu ta Donibane Lohitzun'eko arrantzaleak leendik latiñez egiten zituen otoitzak nundik esan eta kantatu euren izkuntzan euki egien Jesus'en Andra Mariaren omenez idatzi ta biribilduak.

Mugaz emendik Frantzizko Xabier Munibe, Peñafloida'ko kondeak, urtero onduten zituan, baita Bizenta Mogel'ek be, gure elizetan kantateko gabon-abesti politak, Jesus eta Maria eguberri-misterioetan goratuz jakiña. Mugaz aruntz beste itzuli bat egiñik, Alejandro Mihura apaizak «Andredena Mariaren Imitazionea» argitaldu eban (Baiona, 1778), 305 orrialdekoa.

An eta emen Ordena guztietako pradikariak, euren eliz-itzaldi ugarietan, otsegin eta zabaldu bear izan dabez Andra Mariak Nazaret'en eroan eban bizitzaldiko edertasunak eta aunditasunak. Euskalerra Andra Mariaren eliza ta santutegiz bete-bete eginda daukagu; oneitan beti otsegin eta aldarrikatu izan da Jainkoaren Itza; eta onein itzaldi bikaiñetan errez aurkitu zeinkez zati eder-ederrak Andra Mariari eskiñiak. Santa Teresa'ren Prai Bartolo karmeldarrak, euskal liburu naikoa idatzi ta argitaratu zituan, eta bere eliz-itzaldien artean ba-dira oindiño argitara emon bakoak; eta oneitako baten berak agintzen dausku Jesus'en eta Mariaren mirariekaz egiñiko liburu bat.

Juan Jose Mogel, Prai Bartolo'ren sasoiko ta *Peru Abarka* idatzi ebanaren loba zanak, «Mayatz-illerako Berba-aldiak» (Tolosa, 1885, 256 orr.) argitaldu eban; lan interesgarria nunbait, eta emen abesten ditu, bikain-bikain, Andra Mariak bere Nazaret'eko etxe zurian loratu-azo zituan onoiemen argi ta birtute aintzagarriak.

Eustakio Madina eta Uribe'k, lengo gizaldiaren azkenerantz il zanak, euskal idazle lez Donostia'ko «Euskal-Erria» aldizkarian emon ebazan bere lanak, eta Azkue zanak Bilbo'n zuzentzen eban «Euskalzale»-n; oraintsu, 1963'an, Madrid'en argitaratu

zan liburu berezi bat: «Antología Mariana Hispana e Iberoamericana de poesía y pintura: poesías castellanas, catalanas, gallegas, vascas y portuguesas», euskerazkoen artean oneik agiri dira: Balbino Garitaonaindia'ren «Zazpi ezpata», Eustakio Madina'ren «Ama Birjiñari» eta Toribio Iriondo'ren «Andre guztien artean bedeinkatua».

Meltxor Andonegi, Igorre'ko seme apaizak Ume Jesus beronen Jaiotzan eta Andra Mariari bere Zeruetara Jasokundearen neurtitz gartsuak atara eutsezan.

Lapurdi'n ospetsua dogu Martin Duhalde (1773-1804), Ustaritze'ko semea, idatzi bait euskun «Meditazionoe haundiak» deritzan liburu ederra; baita idatzi eban «Andre Dena Mariaren Ilhabethea» (Baiona, 1838) be. Ustariztarrak lan onetan nasai ta zabal azaltzen ditu Andra Mariaren bizitza ta birtuteak.

Zuberoarra dogu, barriz, Manuel Intxauspe (1815-1902), Zunbarre'tan sortua, Baiona eliz-barrutiko Bikario orokor eta euskal idazle sakon, errez eta joria; berea dau Mariari buruzko lan au: «Maria Birjinaren ilabethia edo Mayatzian egun oroz egiteko irakouraldiak Maria Birjinaren bizitza eta birtute edarren ganean» (Pau, 1894). Orixe'k diñoskunez, auxe da Intxausti'ren lanik jator ederrena, ementxe erakusten dausku-ta bere nortasun argi gurena. Ogei ta amaika irakurgai ditu liburu onek, jazon, otoitz eta olakoz zipriztinduta. Berorenak dira baita «Kantika Sainiariak» (Baiona, 1897), Ziberoako euskaraz, Andra Mariari eskiñitako abesti ta poesi ederrakaz.

Etxeberri, Ustaritze'ko kapellauak, beste lan batzuen artean, «Maria bekhatuak gabe...» (Baiona, 1877) idatzi euskun, loratxorta ederra Mariari eskiñia. Eta Laurent Diharrasarri (1848-1902) apaizak, Saran jaio ta Kanbon arimazaintza egin ebanak, «Mariaren Ahurren Esku-liburua» argitaratu eban, au da, Mariaren Alabentzako idatzi samur jakingarria.

Euskal idazle bikaiña dogun Juan Bautista Agirre

(1742-1823) Asteasu'n sortua da. Aren euskal liburuen artean dizdiz dagie Kristo'ren Elizako zazpi Sakramentuei buruzko aleak, eta ortxe dator «Jesukristo eta Birjiña txit Santaren Misterioen... Erakusaldiak» be. 408 orrialdeko liburu mardula.

Ernatarra genduan Gregorio Arrue (1811-1890), bere itzulpen ugarietan Mariari buruzko gaiak be ugari dakazana. Bereak dira: «Mariaren Gloriak» (Azpeitia, 1881); «Sakramentu txit Santuari eta Maria guziz Santari illaren egun guztietarako Ikusaldi edo bisitak» (Tolosa, 1887); «Mayatzeko Illa» (Tolosa, 1889); «Maria Donzella guziz Garbiari bederatziurrena» (Tolosa, 1889); «Karmengo Ama Birgiñaren bederatziurrena» (Tolosa, 1889).

Aita Larroka'k, jaiotzez donostiar eta domingotarren Ordenako idazkari orokor izan eta 1891'an Erroma'n il zanak, euskeraz idatzi euskun «Sakramentu Santu ta Ama Birjiñaren Bisiteta-ko liburua» (Tolosa, 1856).

Urretxuar apaiz Manuel Antonio Antia'k (1830-1894) «Karmeltar debotoarentzat Ikasbidea» (Tolosa, 1883) itxi euskun; liburu ortxe bertan daukazu «Ama Birjiña Karmengoaren bederatzi-urrena» be.

Aita Jose Iñazio Arana josulagunak, ainbat gauza euskeraz osotu ebazanak, «Ama Birgiña guziz garbi Concepciocoaren Oficio laburra, latinezko itz neurtuetatik euskerazko zortzikoe-tara itzulia» (Erroma, 1872) itxi euskun.

Aita Juan Bizente Zengoitia Berriz'ko seme karmeldar mi-ziolari aundiak, Valencia'n karmeldar komentuan nagusi zalarik, liburutxo au argitaldu eban: «Karmengo Anaije cofradentzako Eskuliburua» (Valencia, 1888); ementxo daukazuz Karmengo Eskapularioaren doe, grazi ta mesedeak, baita bederatziurren bat be Karmengo Amari, interesgarria.

Ondarru'ko seme Txomin Agirre, nobela idazle lez euskal literaturan garai agertzen danak, lan au idatzi eban erderaz: «His-

toria de Nuestra Señora de Iciar» (Donostia, 1895). 1854'an jaiotako Zumaia'ko karmeldar Irakasleen kapellau zala, bertan ilantzen 1920'an.

R. M. Azkue (1864-1951) lekeitiarrak erraldoi baten antzerkia bear egin euskun euskerearen alde ainbat eta ainbat lan osoturik: Aldizkari, Iztegi, Kantutegi, Euskalerrriaren jakintza, euskal gramatika, Ipuin, musika-lanak, oratorio, opera... Onein artean Mariatzazko musika-eresiak itxi zituan, eta Lekeitio'ko Antigua'ko Andra Mariari «Bederatzi-urrena».

Arana-Goiri'tar Sabin (1865-1903) bilbotarra, Euzko Alderdi Jeltzalea sortu ebana eta euskeraz ta erderaz idazle gotorra izan zanak, ainbat olerki opatu eutsozan Begoña'ko Amari: «Begoña'ko Ama zerutarrari», «Itxasoko Ixarrari», «Goixeko Ixarra», «Ama Goikuari», «Andera Miren Garbijari»... Eder jakon liradoiñuak Mariari eskintzea, bere erria jasotzerakoan batez be.

Aita frantzizkotar (1860-1935) Angiozar'en jaiotako euskaltzale errimea izan jakunari zor dauksaguz lan oneik: «Iru Avemariena», «Ama Mariari» ta «Ama Birjuñaren Zeruratze ta Korotzeari...» Ordena berekoa dogu Jose Maria Askue Goñi (1869-1938) be, errenderiarra, zenbait liburu euskaraz idatzi ebazana; bereak ditu onein artean, «Andra Mariaren Sortze Garbiari Bederatziurrena» (Bilbo, 1928) eta «Ama Nekatsuaren Bederatziurrena» (Bilbo, 1929).

Jose Bentura Landa (1871-1955), Itziarkoak, «Euskerazko Itzaldiak» (Bilbo, 1907) liburua osotu euskun; 30 itzaldi dira guztiz, eta bertan aupatu ta goersten dira Jainkoaren Amaren birtute, aintza ta aunditasunak. Mateo Muxika'k egin eutson itzaurrea, eta onela diño: «Eskintzen zaiguna zugaitz eder mardula da, Aitor'en izkuntzaz jantzia; Andre Mariari dion eraspennarren Euskal Eleizaren baratzean giartsu ta zoragarri jaikitzea dana...»

Jakingarriak eta gogotan artzekoak dituzu, gaiñera, lengo gizaldiaren azkenetan eta onen asieran agertu ziran liburuxka

oneik: «Maria Santisimaren Mayatzeko Illa» (Bergara, 1850); «Maria Santisimaren amodio ederraren nobena» (Tolosa, 1857); «Errosario txit santuaren debozioa» (Azpeitia, 1864); «Jesus eta Mariaren Billarakoentzat Itz-neurtuak» (Tolosa, 1881); «Aldareko Sakramentu txit Santuari ta Maria...» (Tolosa, 1882); «Maria Birgiña Dolorezkoaren Letaniak» (Tolosa, 1891); «Errosario txit santuaren Debozioa» (Azpeitia, 1864); «Erru gabeko Birgiña Amari bere Sortze garbiyaren fedeko Aitormenaren berrogei ta amargarren urteko Jubiliyuan» (Donostia, 1904); «Andre dena Mariaren botherea edo Salve Regina» (Baiona, 1854); «Maria Bekhaturik gabe concebituari escaincen zaion lorefloca» (Baiona, 1877); «Maria Birjinaren Hibabetia» (Pau, 1894).

Au be, aipagarri danik ezin ukatu. Felipe Etxebarria'k, Beinza-Labaien'eko apaizak, urte mordoa Argentina'n erre ondoren, Euskalerrira biurtuta, euskeraz idazteari emon eutsan, eta berorena da «Bisitak aldareko Sakramentu Santuari, gure Ama Birgina Mariari eta San Joseri» (Tolosa, 1926), Murgertza'ren irarkolan.

Bizkaira itzulirik, Lemoa'n daukazu euskal idazle jator bat, Juan Bautista Eguzkitza, apaiza, (1875-1939); beste liburu batzuen artean, euskera eder, arin, errezean, «Andra Maria'ren Loretako Illa» (Zornotza, 1919) itxi euskun; 290 orrialdeko Mariologi bikaiña.

Aita Martin Uriarte (1879-1960), zeanurristarra, eliz-izlari oso entzute aundikoa ta «Karmen'go Argia» aldizkariaren zuzendari, asko idatzi eban Andra Mariari buruz; bereak ditu «Karmen'go Andra Mariari Bederatziurrena eta asteroko ikustaldia» (Bilbo, 1924) eta «Loretako Illa», ondiño argitara emon baerik.

Aita Doroteo (Isidro Barrutia Zuazua) Eskoriatza'n ludiratu zan 1883'an eta Begoña'n il zan 1948'an. Euskal idazle gozoa. Euskalerriko karmeldarrak 1931'an «Karmen'go Argia» sortu ta aurrera eroaten asi ziranean, Aita Doroteo aukeratu eben nagusiak beronen zuzendari lez. Liburu bi daukaz Andra Mariaren

omenezkoak: «Karmengo Amaren Esku-Liburua» (Zornotza, 1931) ta «Aita gurea ta Agur Maria» (Zornotza, 1931). Otoitz bi onein azalpena berak zuzentzen eban aldizkarian dator.

Juan Krutz Ibargutxi (1883-1969), Ubidea'ko semea ta eliz-gizona, euskal idazle oparoa dozu; Jaungoikoaren Legeko Aginduak eta Eleizaren Sakramentuak eta Kredoa azaldu zituan batez be; baiña ba-dau beste emoitx aberats bat be, «Otoia» (Bilbo, 1955), eta emen adierazten dauskuz idazle argiak nasai ta sakon «Agur Maria» eta Errosario Santua.

Ez daiguzan aztu oneik be: «Maria'ren Debotoaren Astea» (Durango, 1907), Florentino Elosu'ren irarkolan; «Karmelo'ko Ama Birjiñaren oñetan» (Zornotza, 1918); «Andra Marija-Sorkundiaren Bederatziurrena» (Bilbo, 1913), Grijelmo'ren irarkolan; «Mariaren Alaben Ikustaldia» (Zornotza, 1929); «Ama Birgiñaren Concepciño guztiz garbia» (Bilbo, 1902); «Errosario santua errezzatzeko modua», bertsoetan; «Mariya, Jaungoikoaren Ama» (Bilbo, 1862).

Soraluze'koa izan zan Polikarpo Larrañaga (1883-1956), apaiz jakitun eta ospetsua. Euskeraz eta erderaz idatzi eban. Arrate'ko Amaren deboto aundia, ango santutegiaren edestia itxi euskun, eta «Arrate'ko Andra Mariya'ren Bederatziurrena» (Zornotza, 1919).

Jorje Agirre (1885-1947) Jesus'en Lagundikoak, gai asko erabili zituan, bere euskal lanak borobiltzeko, eta orrein artean, «Maria'ren Alaben eliz-liburua» (Donosti, 1934), itxi euskun polito egiña.

Juan Basurko (1890-1957) Ondarribi'ko seme arotz olerkariak, «Jesus», «Iñazio Deuna» eta «Ibiltari bikain bat» poemaz gaiñera, «Arantzazu'ko Amaren edestitxoa» (Arantzazu, 1957), 46 orrialdekoa itxi euskun.

Gogora puska oneik: «Agurtza Deuna» (Eibar, 1914), Die-

go'ren irarkolan; «Doloretako Birjiñ Amaren Bederatzi-urrena» (Tolosa, 1912), F. Mugertza'ren moldiztegian; «Ama Birjiña Izaskun-goaren Imagiña».

Joanes Elizalde (1883-1961) apaiza, Askain'go seme ta euskal letretan «Zerbitzari» izen-ordez geiago ezagutua. Beronen euskal idaztietatik ez da eskaxena: «Ama Maria Pasionekoa» (Baiona, 1930), 101 orrialdekoa.

Jean Barbier (1875-1931), Aterratz'en (Zuberoa'n) sortua, euskal idazle ugari, gozo, atsegiña izan jakun, ipuinlari ta olerkari lez oberenen artekoa. «Ama Birjina Lurden» (Baiona, 1920) idatzi eban; 267 orrialde daukaz, eta bertsoz eta prosaz idatzita dago. Liburu baliotsua, Maria'ri buruzko gaiez josia batez be.

Domingo Soubelet (1897-1970), apaiza ta Azparne'ko semea. Aren euskal liburuen artean iru daukazuz Andra Mariari eskeiñiak: 1) «Lurdeko Ama Birjiña» (Baiona, 1942), 239 orrialde; 2) «Fatimako Ama Birjiña» (Baiona, 1925), 314 orrialde, ta 3) «Buloneko Ama Birjiña». Aipagarri dozu baita «Maiatza edo Mariaren Hilabthia» (Baiona, 1932), «La Prese» irarkolan argitara emona; 99 orrialde.

Nemesio Etxaniz'ek (1899-1981), apaiz urduriak, euskerearen alde orren kementsu jokatu ebanak, olerkari fiñ eta euskal idazle punterengoak, lan oneik ondu euskuzan Andra Mariaren ederrez: 1) «Itziar'ko Andra Maria'ren kondaira laburra ta Bederatziurrena» (Zarautz, 1949), Itxaropena'ren irarkolan; 2) «Urrategi'ko Andre Maria'ri Bederatziurrena», eta 3) «Arantzazu'ko Amari Poz-jarioak» (Zarautz, 1954).

Oraintsu illa dan Anizeto Zugasti (1904-1983) Altza'ko seme ta apaizak, Andra Mariaren gorapenezko lan oneik irarkolaratu zituan: 1) «Maiatze'ko Loreak» (Zarautz, 1950); 2) «Ezotzi'ko Andre Maria'ri Bederatziurrena» (Zarautz, 1951), eta 3) «Ama Birjiña Miraritsua» (Donostia, 1962).

Axangiz'ko semea zan Jose Antonio Oar-Arteta (1900-1979) apaizak, bere euskerazko lanen artean bat dauko titulu onekin: «Begoña'ko Ama Birgiñari Bederatzi-urrena» (Bilbo, 1963), Editorial Vizcaina irarkolan. 30 orrialde.

Julian Barandiaran (1904-1967) Aita karmeldarrak asko idatzi eban Andra Mariari buruz. Bereak ditu liburuok: «Andre Mari Euskalerriko mendietan» (Bilbo, 1952), Etxenagusiaren irarkolan, 264 orrialde; «Andre Mari Gaztediaren eskuetan» (Gasteiz, 1954), 280 orrialde; «Arrate'ko Ama Sortzez Garbiaren Kondaira ta Bederatziurrena (Bilbao, 1960), eta beste bi oneik oindiño argitaratu barik: «Andre Mari Gaztediaren eskuetan» (bigarren zatia) eta «Andre Mari Mirarietan», au be argitaratu bage.

Azkenekoz, leen eta orain, mugaz andik eta emendik, erre-bista ta aldizkari mordoia izan ditugu Euskalerrian; ona batzuk: «Euskalduna», «Herria» mugaz beste aldean; «Zeruko Argia», «Aranzazu», «Nora?», «Jesus'en Biotzaren Deya», «Karmen'go Argia», «Jaungoiko-Zale» eta abar mugaz emendik. Oneik guztiok konta-ezinala artikulu ta lan ekarri ditue Andra Maria goratu, sakondu ta adierazoz.

Guk karmeldarrok -eta nik bereziki- Karmengo Amaren Gutun edo Eskapularioaren Zazpireungarren urte-betetzea zalata, 1951'an ain zuzen, «Karmen'go Amaren Egutegia», gero-txoago «Karmel» biurtuta, sortu genduan, eta gaur be, 33 urte joanak diran arren, emen dabilkigu, nekez baiña, aurrera egin nairik. Aldizkari onek eundaka ta eundaka artikulu agertu ditu bere orrialdeetan, Andra Mariaren omenez jakiña. Eta aurre-rantzean, iñoiz porrot egin bage, arlo orretan ekingo dautsola, nik uste. Ama goratzea, izan be, zeregiñik aintzagarriena baita.

Aita Onaindia